


TERESA LISIEUXKOAREN ERLIKIAK EGOALDEAN

1897. irailaren 30ean, arratsaldeko zazpirak eta ogeian, ilzan santa Teresita. Eguena zan eta 24 urte besterik ez eukazan. Urrengo asteleenean, urriaren lauan, komentuko eleizatxoan goizeko bederatzietan illetak ospatu ondoren, erriko kanposantura daroe bere gorpua. Eta bertan obiratuko dabe Teresita, lurrean egindako iru metro ta erdiko zulo sakon baten. Lur emoteko ordu orretan, zortzi pertsona besterik ez ziran aurkitzen Teresitaren gorpuaren inguruan. Bere aizta Leonia, bere izekoa, bere lengusiña Juana ta onen senarra La Neele medikua, ta beste hiru senitarteko.

Laster asiko dira erromesak Teresitaren illobira. Mirariak be ez dira faltako. Batzuk oso sonatuak. Esaterako, jaiotzatik itsua zan lau urteko umetxo baten bistaren lorpena. Umetxo onen izena, Reine Fauquet. Gaiñera, Lisieuxkoa zanez neskatzxo au, izugarrizko eragiña izan eban bere erritarren artean. Baiña, batez be, bere bizitzako autobiografia izango da sona ta fama munduan zear geien emongo deutsona Teresitari. Orregaitik, andik eta emendik, ugaritzen doaz erromesak Teresitaren illobira. Onen "errua", alde batetik berak idatzitako autobiografiaren arrakastak ta bestetik, bere bitartez, egiten diran mirariak daukee. Erriak, Erromako Aita Santuak baino leenago, santutzat onartuko dau Teresita. Naizta, kasu onetan, Erroman berta be, azkar ibili! Il eta ogeita zortzi urte igaro haño leenago, 1925.eko maiatzaren 17an, santu eginda daukagu Teresita.



Markinan

Teresita altaretara jaso aurretik, Eleizak bere gorpua lurpetik ateratzea agintzen dau. Askok usteldu barik egongo zalakoan-eta, desengaiñu ederra eroango dabe. Bakarrik eskeletoa egoan osorik. Eskerrak eskeleto orreri, jakin badakigu, Teresitak metro bat eta irurogeita bi zentrimetro neurtzen ebazala. Arritzeko gauza bakarra izan zan, Teresitaren atautean jarritako palma-adarra berde-berde egoala oraindiño. Beste gauza berezirik ez zan aurkitu Teresitaren gorpuaren desehorzketan.

Ta eskeleto orixe da, kutxa eder baten barruan gordeta, munduan zear darabilguna. Kutxa ori Brasildarren erregalua dogu. Berrogieta amar milletik gora izango ziran, kanposantutik komentuko bidea egiten lagunduko eutsoenak. Ordutik ona, Teresitaren erlikiak Lisieuxko Karmengo komentuan aurkitzen dira. Urtero bere jai egunean, erlikia komentutik basilikara joan etorria egiten dabe. 1947 eta 1948. Frantziako eleizbarruti guztietan zear erabili ziran. Baita Baionan ere. Eta gainera itzelezko


eragiña izan eban bisita orrek gure Iparraldeko euskaldunen artean. Ezin aaztu Teresita santu egiteko, Eleizak onartutako miraria Ustaritzen jaso zanez, giro ezin ohea be baegoan Iparraldean.

Aurtengo irailean izan ditugu Egoaldean Teresitaren erlikiak. Araban irailaren 22tik 23ra. Bizkaian, irailaren 24tik 26ra. Gipuzkoan, 27tik 28ra. Eta Nafarroan, 29tik 30ra. Ez zan Teresita bizi zala etorri gugana. Bai, oster, il eta gero. Bere aizta Zelina kutuna bein egona zan Donostian turista gisan. Bai aitaren aldeko aitita ta baita amaren aldekoa be, Euskal Herritik ibiliak ziran biak Frantziako gudarostean erroldatuta. Bata, aitaren aldekoa, kapitan bezela ta bestea, amaren aldekoa, sarjentu nagusi bezela.

1994. geroztik Teresitaren erlikiak mundu guztian ikusiak izan dira. Bai Ameriketara eta bai Afrikan, bai Asian ta bai



Markinan



rako, milloika pertsonak ikusi izan dabe erlikien kutxa. Beste lekuetan be antzera.

Australian. Eta zer esanik ez, European zehar. Eta ez bakarrik Frantzian, baita Beljikan, Italian, Holandan, Luxenburgon, Austrian, Alemanian, Polonian, Rusian goitik beera ta beste errialde askotan be Teresitaren erlikien bisita izan dabe.

Teresitaren eriotzaren mendeurrena ospatzeko, Parisera, Lionera ta Marsellara bere erlikiak eroateko asmoa bazan. Baiña andik eta emendik eskatu eta eskatu eta ez dakigu noiz amaituko dan Teresitaren erlikien bira munduan zear. Estatu Batuetan, esate-

Fenomeno antropologikoa

Erliekianako benerazioa ez da soilik kristau fenomeno bat. Batez be, fenomeno antropologiko unibertsala dogu berau. Gizadiaren sorreratik datorrena. Orixen baita gizadiaren presentzia geienbat frogatzen dauan ezaugarri bereziena lur onetan. Ze antropologo esanetan, gizakiok ei gara bakarrik gure ildakoei lurra emoten deutsegunak-eta.

Koba zuloetan edo illobietan arduraz ta kontu aundiz ipinita aurkitzen diran giza gorputzak guretzako oroigarri, gomutamen eta kidetasun ditugu. Orixen besterik ez dogu egiten urtero-urtero, kultura desberdiñetako milloika andra-gizonok kanposantuetan geure familikoen "erlikien" aurrean alkartzen garanean otoitzean edo lora txorta bat eskeiñiz edo bertso bat kantatuz.

Beste orrenbeste adierazoten deuskue, gaur egunean be, ainbat ta ainbat jazoerak. Esaterako, New Yorkeko World Trade Centerreko dorre bikoitzak lurra jo ebenian edo Baltiko itxasoan Rusiako Kourks urpekuntziaren tragedian, egiñalak egin izan dira, bertan il ziranen gorpuak topetan, euren famili-koei emoteko.

Erlikien kristau esanaia

Eleizak beti errespetatu izan ditu ildakoen gorpuak. Baita euron aurrean errezaue be. Praktika au asieratik gaur arte bizi izan dau Eleizak. Illetetan be, aal izan ezkeru beintzat, gorpua tenplura eroatea nai izaten dau Eleizak meza santua gorpuaren aurrean ospatzeko.

Gizon-emakumeok ez gara espirtu utsak ta ezaugarrien be-arrizana daukagu. Orregaitik santuen erlikiak gogoratzen deuskue euren gizatasuna. Euren gorputzekin pentsau, errezaue, lan



Markinan

egin, sufridu, maitatu ta esperimintau izan eben barnetik euren bizitzako gorabeerak. Eta askotan Jaungoikoak erliki oneen bidez agertzen ditu bere aalmena ta aintza. Jaungoikoaren logika ta munduarena ez datoz beti ados. Pablo apostoluak korintotarrei esandako berbak ez dira txantxetakoak: “Jaungoikoak munduko zoroak aukeratu ditu jakintsuak lotsarazteko eta munduko argalak indardunak lotsarazteko” (IKor 1, 27) “Izan ere; Jaungoikoaren zorakeria gizonak baino jakintsuago da; eta Jaungoikoaren auleria, gizonak baino idartsuago” (IKor 1, 25)

Guzti au, Teresitaren kasuan beintzat, argi baino argiago ikusten da. Bere erlikien bidez, Jaunak gauza ederrak egin ditu ainbat pertsonen biotz barnetan. Baita ageriko mesede galantak be. Gaur be bai! Berealaxe jatorku gogora Jesusen otoitzik ederrenetariko au: “Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza oneek jakintsu eta ikasiei ezkutatu deutsezuelako eta jende xumeari agertu” (Lk 10, 21)



Markinan



Zarautzen

Gainera, santuen erlikien benerezioak eta gurtzak geure biztuera be adierazoten dabe. Gure gorputzak be Jaunaren salbamenean artzen dabe oso-osoan parte. Orregaitik, Eukaristia egiten dan altaretan, santuen erlikiak ipinten dira, Eukaristia dogulako gure biztueraren garantiarik aipagarriena.

Azkenik

Arritzekoa da baiña Teresitaren arrakastak ez dauko amai-rik. Bere bizitza eta bere mezua geroago ta indartsuago ageri jakuz. Esaterako, aurten berton, udazkenean, Teresitari buruz Unibertsitate Gregoriana sonatuak antolatuta, kongresu aundi bat egingo da Erroman. urriaren leenengotan, Teresitaren beste filme baten estreñaldia be izango da Estatu Batuetan. Filmearen izena “Thérèse” eta pelikularen zuzendaria Leonard Defilippis ditugu. Liburuak eta artikuluak ta itzaldiak berari buruz non-nai. Bere “Eskuizkribu autobiografikoak” (*Arima baten Istoria*) irurogei izkuntzetatik gora itzulita daukaguz. Biblia



Hondarrabin

aparte, ez dago beste liburu erlijoso bat, orrenbeste itzulpen daukanik. Baten baiño geiagotan best-seller izatera be eldu da. Frantzian bertan, gaiñera! Euskeraz be, bere idazlan guztien itzulpena ederra baino ederragoa argitaratuta daukagu, 1996garren urtean.

* * *

Teresa Lisieuxkoa Bizkaian

Udazkenaren asieran, irailaren 24, 25 eta 26, Bizkaian izan ditugu Teresaren erlikiak. Bilbon, Getxon, Larrean, Durangon eta Markinan makina bat jende batu da Teresita goraltzeko. Eleizak puntaraino beteta. Eleizkizunak bata bestea baiño ederragoak. Txaloak merezi dabez ain ederto prestau izan dabez guztiak! Batez be, Bilboko gotzain biak, bai On Rikardok ta bai On Karmelok gogotsu artu izan dabelako parte. On Rikardok ez bakarrik Katedralean baita Getxon be emon eban

meza santua. On Karmelok, osterara, Larrean eta Durangon. Eta gainera, On Rikardo Teresita egon dan toki danetan presente egon da. Eskertzekoa euron hurkotasuna ta laguntza! Eta zer esanik ez, euron sermoi mamitsuak.

Ainbeste ospakizun ederren artean, batek ez daki nondik asi be. Ain apartekoak izan dira danak be! Ezer aipatzekotan, ni neu geratuko nintzake momentu oneekin: Bilboko Katedraleko Meza zoragarriaz On Rikardo Gotzaina buru dala; Larrean eta Markinan umeeekin eta gazteekin egindako ospakizun biziak; Getxoko arrera, gabeko amarretan, zirrargarria benetan; Durangoko otoitz-beila eta Markinako monjetan abestutako bezperak zerutiarrak irudien. Baiña neure bizitzan iñoiz aaztuko ez dodazan gauza bi onexeez izango dira. Bata Larrako gazteen ospakizunean Teresitarena egin eban neska gaztearen zeregiña eta bestea, Markinako Karmengo eleizan, Teresaren "Nire poza" poema Gotzon Aulestiaren musikaz abestu eban Madrilgo Sonia mezzo-sopranoren barne-sentiberatasuna ta lirismoz beteriko abots ezitsua. Neska bion ekitaldiak biotzak dar-dar jartekoak izan ziran, hunkigarriak!

Oso polita ta egokia izan zan beste au be. Markinako Karmengo Eukaristian, sermoiaren orde, emakume batek, mezako irakurgaiekin ondo baino obeto ados etozan Teresitaren testu eder batzuk irakurri ebazan. Jende guztia adi-adi pozaren pozez entzuten!

Amaitzeko, ainbeste pasadizu artean, iru bakarrik jarriko ditut. Eta irurak Larreagaz lotuta dagozanak. Erlikien etorrera egunean, iru gotzain aurkitu ziran batera Larrean: Bilboko biak eta On Ambrosio, Barbastroko gotzain ohia; erlikien kutxa eroaten lagundu eban gizon bat, Amorebieta-Etxanoko alkate jauna izan genduan; ta gazteen ospakizunean Teresitarena egin eban neskea, Amorebieta-Etxanoko alkateordea dogu gaur egun.

Eskerrik asko, Teresita, gugana etortzeagaitik!"

A. Olea